

Parte-hartzea garapenean: hainbat diskurtso eta jatorri

Unai Villalba Egiluz

**EHUko Ekonomia Aplikatua I Sailean ikertzailea
praktiketan Eusko Jaurlaritzak ordaindua**

Garapeneko parte-hartzearen definizio bakar bat adostea ez da erraza, parte-hartze maila eta forma ugari daudelako eta garapenerako estrategia desberdinak ere badirelako. Testuaren helburua, beraz, ez da definizio hobeenaren elementuak seinatzzea, baizik eta garapenaren diskurtso desberdin horiek parte-hartzerako zer suposatzen duten azaltzea. Hasteko, pertsonen gaitasunak eta aukerak zabaltzea bilatzen duen giza garapenaren teoriatik abiatuta, norbanakoen jarrera aktiboa eta bere parte-hartzea garapenaren elementu esentziala dela nabaria da. Ondoren, garapen jasagarriaz aritzean, ekoizpen- eta kontsumo-ereduak aldatu beharko liratekelakoan, parte-hartzea funtsezkoa bilakatzen da eraldaketa hori negoziatzeko interes-talde desberdinen arteko adostasunera ailegatu ahal izateko. Azkenik, Munduko Bankuaren diskurtsoa aztertuta, parte-hartzearen ikuspegi instrumental bat aurkitzen dugu proiektuen jasagarritasuna bilatzen baita nagusiki. Jada testua bukatzeko, hainbat puntu kritiko gainditzeko parte-hartzea politizatze beharra azaltzen da.

It is difficult to reach to a common definition of participation in development, first because there are many levels and forms of participation, and second because there are also many ways to understand development and many strategies to approach it. Therefore the aim of the text is not to identify the main elements of a proper definition, but to explain what kind of participation seeks each theory. First, from the human development theory's search of expanding people's capabilities and choices, it is obvious that individual's active attitude, and so, their participation is a constitutive part of the development. Next, speaking about sustainable development, it implies such a change of our production and consumption patterns that the participation of each interest group becomes fundamental if a consensus is to be reached. Finally, the World Bank makes an instrumental use of the participation which seeks the sustainability of the implemented projects. To end the text, we explain some criticism about participatory development, and the need to politicize its practice.

1. Parte-hartzearen kontzeptuaz eta zabalpenaz

Artikulu honen egiturak berak adierazi nahi duenez, ez dago garapeneko parte-hartzearen definizio bakar eta komun bat, eta Bigarren Mundu Gerraren osteko Historia ekonomikoan zehar garapenaren hainbat teoria bata bestearen atzetik sortzen joan diren bezalaxe, garapeneko parte-hartzearen hainbat helburu, definizio eta praktika agertu dira. Dena den, sarrera moduan parte-hartzearen definizio bat proposatzen dugu, horren gainean lan egiteko tresna gisa baino ez:

Garapen-proiektu, -programa edo -politika batean bidezko interesak dituzten komunitateak edo sektore sozialak, aurretiaz bazterturikoak bereziki, ekimen horietan eragiten eta erabaki hartzean edo baliabideen kudeaketan inplikatuak direneko prozesua, beraien garapen propioaren aktore bihurtzen direlarik (Perez de Armiño 2000).

Argipen horien ostean, atzera begiratu eta parte-hartzearen praktika desberdin horiek denboran identifikatzen joan gaitzke. Hala, Hickey eta Mohan-en aburuz (2005) parte-hartzearen inguruko lehenengo kezka 40ko eta 50eko hamarkadetan azaltzen dira, gehienbat Britainia Handiaren aldetik koloniak garatzeko eta kontrolpean mantentzeko politiketara lotuta. Jatorri argiagoa jada 60ko hamarkadan zehar zertzen da, batetik iparraldeko herrialdeetan ongizatezko estatuaren garapenarekin eta parte-hartze politikorako aldarrikapenekin batera, eta bestetik, Hirugarren Munduan, bertan bultzatzen diren garapen-programa eta proiektuei lotuta. Izan ere, tokian tokiko garapen-langileak pixkanaka konturatzen joan ziren proiektu horien eraginkortasunerako hobe zela helburu ziren komunitateen laguntza izatea, askotan horien pasibotasunak eta ulermen ezak arazoak suposatzen baitzituzten (Dubois, 2000). Inplementazio-akats asko komunitateei kontsultatu ez izanagatik gertatzen ziren, eta hor non pertsonak proiektuetan inplikatuta zeuden lorpenak haundiagoak ziren, baita terminu finantzarioetan ere.

70eko hamarkadatik aurrera jada parte-hartzearen metodologia eta praktika nagusiak sortzen joan ziren. Horietako bat Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IEP) dugu, Paulo Freire-k famatu egindako helduen hezkuntza herritarrari lotuta, eta beraz ez dago soilik garapen-lankidetzarako proiektuei atxikituta. IEP parte-hartzearen bidezko errealitatearen azterketa kritikoan oinarritutako giza eraldaketa bilatzen duen ikerketa eta ikasketarako metodoa da.

80ko hamarkadan sortua, oso ezaguna izan den eta gaur egun arte jarraipen haundia izan duen beste metodologia eta ikusmolde bat Landa Diagnostiko Parte-hartzailea (LDP) da¹. Metodologia honek tokian tokiko biztanleriak bere arazo eta lehenetsunak adieraztera bideratutako teknika eta metodo anitz biltzen ditu, eta hortik sortutako informazioa beraiek ere erabiltzen dute garapen-proiektuen diseinu, burutzapen, jarraipen eta ebaluazioan (Perez de Armiño, 2000).

Hastapen-garai haietan parte-hartzea kontu nahiko polemikoa zen, eta sailkapen ideologiko zorrotzak egitera azkar bideratzen zuen; gaur egun, ordea, nazioarteko organismo askok euren adierazpenetan parte-hartzea ekintzarako

1. Atal honetan aipagarriak izan daitezke Robert Chambers-en lanak: (1994) Participatory Rural Appraisal (PRA): Challenges, potentials and paradigm, *World Development*, 22. lib., 10. zk. (1997) *Whose Reality Counts? Putting the First Last*, London Intermediate Technology.

estrategia gisa hartu dute (Kliksberg, 2000). Zentzu horretan 90eko hamarkadatik aurrera adostasuna gehitzen joan zen, eta osera garapen parte-hartzailea deituko duguna hiru faktoreen arian sortzen joan zen: LDPren erabileraren orokortzea, parte-hartzearen aldeko diskurtsoen orokortzea, eta zabalpena eta metodo eta teknika parte-hartzaile gehiagoren sortzea (Blackburn, Chambers eta Gaventa, 2001). Horren handia izan da moda honen indarra eta nazioarteko organismoen erretorika honen erabileraren ondorioak ezen hainbat autorentzat parte-hartzea garapen-makinaren ortodoxia berria bihur zitekeen (Cooke eta Kothari, 2001). Dena den, analisi historiko hau hemen utzi, eta ondorengo atalean 90eko hamarkadan sorturiko hiru ikusmolde garrantzitsu aipatuko ditugu, garapenaren teoria eta diskurtso desberdinetatik eratortzen diren azterketa-puntutzat harturik.

2. Garapenaren diskurtso desberdinak eta euren inplikazioak parte-hartzearen moduetarako

2.1. Giza Garapena

Lehenik eta behin argitu beharra dago atal honetan nagusiki Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) bere giza garapenaren urteroko txostenen bitartez bultzatzen duen pentsamolde-korronteaz arituko garela, batik bat txosten horiek duten hedapenagatik. Hasierako txostena 1990ean argitaratzen da, eta bertan giza garapenaren kontzeptua aurkeztzen da pertsonei aukera gehiago eskaintzen dien prozesu bat bezala, beraien gaitasunak zabaldu eta beraien bitartez hautuak aurrera eramateko benetako aukerak ere zabaltzen direlarik. Zentzu horretan, parte-hartzeak hasieratik paper garrantzitsua jokatzen duela intuitiboki esan dezakegu, gainera hainbat pasartetan azaltzen da pertsonek euren helburu propioak finkatzea, edota ez bakarrik emaitza materialak baizik eta beraien komunitateetan jarduera ekonomiko, kultural eta politikoetan parte-hartze sentimendua izatea, garapenaren berezko zati garrantzitsua direla (NBGP, 1990).

1993ko txostenak "Parte-hartze herritarra" izenburua du, eta bertan parte-hartzea horrela deskribatzen da: «Jendeak estuki esku-hartzea beraien bizitzetan eragina duten prozesu ekonomiko, kultural, sozial eta politikoetan... prozesu hauen gaineko zuzeneko kontrol osoa edo zeharka eta partziala jardun dezakete... erabaki-hartzerako eta botererako sarbide konstantea izatea da garrantzitsua». Gainera parte-hartzea garapenerako instrumentu bat eta helburu bat bera dela aldi berean esaten da, eta beraz, ez da momentu konkretu bakar bateko egitate aislatu bat, baizik eta etengabeko prozesua (NBGP, 1993).

Aurreko deskribapenean ikusten denez parte-hartzearen oso definizio zabala egiten da, arlo sozial, ekonomiko eta politikoan eragiten baitu eta zentzu horretan asmo handikoa da ikuspegi normatibo batetik. Baina aldi berean, handinahi horrek bestelako ahuleziak sor ditzake, zeren horren barruan praktika desberdinak justifikatu ahal baitira, prozesuen gaineko kontrolaren ebaluazio-limiteak oso irekita uzten baititu, eta, bereziki, txosten osoan zehar jorratzen diren gai eta adibideetan argi ikusten baita.

Hala, kapitulu bat publikoaren eta merkatuaren arteko harremanari eskainita dago. Merkatuen inguruan mintzo denean, publikoarentzako onuragarriak bihurtu

behar direla dio, eta esparru ekonomiko horretan parte hartzeko modurik hobereena enplegua dela. Baina aurrerago onartzen denez, jendeak merkatuan parte hartzen duenean oso hasiera-puntu desberdinetatik egiten du, eta ondorioz oso etekin desberdinak atera ditzake; kasu honetan prozesuaren kontrola oso zeharkakoa eta batzuetan ia nulua izan daiteke.

Beste bi kapitulu, gobernu motari eta deszentralizazioari eskaintzen dizkio, giza garapenerako funtsezkoak direlakoan, bereziki deszentralizazioaren bidetik boterea eta erabakiak jendearen beharregatik gertuago egon daitezen. Dena den, jada ohartzen du deszentralizazioak giza garapenaren aldeko emaitzak izan ditzan, gobernazio maila orokorragoari eta existitzen diren botere-egiturei errepertatu behar zaiela, zeren bestela oligarkia lokalek prozesu horren onura guztiak xurgatu ahal baitituzte. Eta azkenik, botere-berregituraketa horretan gizarte zibilak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) izan dezaketean paperaz mintzo da.

2002ko txostenak giza garapenaren eta demokraziaren arteko loturak aztertzen ditu, eta noski, ildo horretan, gobernagarritasunarekin batera parte-hartze politikoari garrantzia ematen dio. Erabaki-hartze prozesua eta esparruak gizarteari irekitzea da ideia nagusietako bat, ardura eta kontu-argiketa haunditu daitezen, instituzioen funtzionamendua hobetu dadin, kudeaketa publikoaren krisi-eszenatoki batean murgilduta gaudela ohartaraziz.

Txosten horretan aipatzen den beste kontu garrantzitsu bat nazioarteko sisteman dagoen praktika demokratiko eskasaren salaketa da. Zentzu horretan herrialdeen arteko botere-banaketa desberdinak frustranteak izan daitezkeela aipatzen du, eta bestetik nazioarteko erakundeek egitate horren isla direla eta gizarte zibilaren ahotsari itxita darraitela seinalatzen du (NBGP, 2002).

NBGPren 1993ko eta 2002ko txostenetan zentratu garen arren, komenta daiteke badaudela giza garapenaren dimentsioen zerrenda bat osatzen saiatu izan diren autore ugari, eta horietariko hainbatentzat ere parte-hartzea funtsezko elementua dela. Alkire-k (2002) egiten duen saiakera horien berrikustean, soilik Max-Neef-ek identifikatzen du parte-hartzea garapenaren berezko elementu bat bezala, baina izen berarekin ez bada ere, beste hainbatek garrantzitsutzat jotzen dute ere, Doyal eta Gough edo Nussbaum-ek esaterako. Zentzu berean, Sen-ek (2000) ere aipatzen du, «hainbat prozesu, hala nola parte-hartzea erabaki politikoetan eta aukeraketa sozialetan, ezin direla garapena lortzeko bitarteko huts bezala kontsideratu, baizik eta garapenaren helburuen parte esentzial bezala hartu behar direla».

Azkenik giza garapenetik abiatuta parte-hartzeak nola beharko lukeen beste autore baten iritzia jaso nahi dugu, bereziki boterea eskuratzea prozesu bezala definitzen duelako (Ibarra, 2000). Zentzu horretan giza talde baten bere esparru komunak bere helburuetan muga barik definitu, planifikatu, kudeatu eta erabakitzeko gaitasuna dela definitzen da parte-hartzea. Dena den, botere zuzeneko esperientziak oso mugatuak direlako eta bere kontzeptualizazioa ere zailagoa delako, oro har, giza garapenaren diskurtsoetan ere maila instrumentalago bat azalarazten da, besteak beste, egitura demokratikoa eta gizarte zibil aktiboa azpimarratuz (*ibid.*).

2.2. Garapen Jasangarria

Aurreko kasuan egin bezala, lehenengo garapenaren teoria hau zein den bi hitzetan azalduko dugu, haren lorpenean jendearen parte-hartzeak zer suposatzen duen uler dezagun. Garapen Jasangarriaren definizio eta praktika desberdinak dauden arren², zilegi da jatorritzat *Brundtland Txostena* hartzea, bertan famatua egin den definizioa ikus dezakegu:

Garapen jasangarria gaur eguneko belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da, etorkizuneko belaunaldiek euren behar propioak ase ditzaten baldintzatu barik. Bi oinarritzko kontzeptu planteatzen ditu:

- “Beharren” kontzeptua, bereziki txiroen oinarritzko beharrak, horiei lehentasun argia eman beharko litzaiekeelako.
- Teknologiaren egoera eta antolaketa soziala, eta gaurko eta biharko beharrak asetzeko ingurumenaren gaitasunetik eratorritako mugak (NBIB, 1988).

Definizio horren hasierako esaldia kalean gehien entzuten dena da, baina osteko bi kontzeptuak seriooki hartzearen ondorioak garrantzitsuak dira, baita parte-hartzearen ereduaren analisiari dagokionez ere. Batetik garrantzitsua da, txiroen beharrak lehentasunezkoak direla ahazten ez badugu, edota Riechmann-ek (1998) aipatzen duen bezala, beharrak sozialki determinatuak direla —edo horien bitarteko satisfaktoreak bai behintzat³—, kontuan hartzen badugu. Bestetik, ingurumenaren edukiera mugatua dela eta, giza talde desberdinek interes kontrajarriak dituztenean baliabide horien gainean, euren arteko harremanak erregulatzeko dituen antolaketa sozialak erabateko garrantzia du.

Baina analisisetan murgildu baino lehen, helburua da ikertzea nondik datorren parte-hartzearen inguruko kezka diskurtso honetan, eta horretarako 1992ko Lurraren Gailurrean gertatutakoari begira, *Rio-ko Adierazpena* hartuko dugu orain hizpide. Testu horretan 10. printzipioan esaten da «ingurumen-gaiak jorrazteko modurik hoberena interesaturik dauden herritar guztien parte-hartzearen bidezkoa da, dagokion mailan». Halaber, 20. eta 22. printzipioetan emakumeen eta herri indigenen parte-hartzearen garrantziaz mintzo da.

Baina parte-hartzearen zabalpenari dagokionez, gailur horretatik ateratzen den bigarren dokumentua da garrantzitsuena, Agenda 21. Bertan 23. kapituluaren talde nagusien papera indartzeaz mintzo denean honela dio: «Garapen jasangarria lortzeko oinarritzko baldintzetako bat erabaki-hartzean iritzi publikoaren parte-hartze zabala da. Gainera, garapenaren eta ingurumenaren testuinguruan, nabaria da parte hartzeko eredu berriak erabiltzeko beharra». Hala ere, ordutik iragan

2. Egun garapen jasangarria ulertzeko modu asko daude, eta bere izenean praktika eta politika mota asko justifikatzen dira, horrexegatik “kontzeptu txikle” deritzo, nahi haina luza daitekeelako bere barruan denetarik sar dadin. Hala, batzutan hazkunde jasangarriaz hitz egiten da; edo hiru jasangarritasunez: sozialaz, ekonomikoaz, eta ingurumenekoaz; edo jasangarritasun gogorraz soilik ekologikoa denean... Eta finean gobernuak orotariko proiektuak sartu nahi dituzte label honen barruan.

3. Giza garapenaren atalean aipatu denez, hainbat saiakera egon dira gizakion oinarritzko beharrak zeintzuk diren zerrendatzeko, eta elementu guztiak berdinak ez izan arren, antza handia egoten da oinarri-oinarritzko behar horiek gizaki oroentzat bertsuak direlakoan. Hori bai, gizarte konkretu batean behar bat nola asetzen den bestelako gauza bat da, hor aniztasun soziokultural izugarria baitago, eta oinarritzko behar bat asetzeko modu kultural konkretuari *bitarteko satisfaktore* deritzogu.

diren 15 urtetan, finean, eragin gehien izan duen atala 28. kapitulua da, tokiko erakundeek ekimenez mintzo denean, horiek tokiko Agenda 21 ezartzearen bitartez parte hartzeko bide ugari frogatu baitituzte.

Europa mailan eta ikuspegi legal batetik ere hitz egin nahiko bagenu, Aarhus Hitzarmena aipa genezake, non bere 4. artikulutik 9.era ingurumenaren eta parte-hartzearen hiru aspektu jorratzen diren nagusiki: informaziorako lorbidia, erabaki-hartzea eta justiziarako eskubidea. Nazioarteko beste hainbat konpromiso ere kontuan hartu ahal genituen⁴, edo estatu mailan nazioarteko deklarazioak parte-hartzeari dagokionez nola garatzen eta aplikatzen diren ikusi, baina guztiek antzeko azalpenak ematen dituztenez, ez da horren beharrezkoa.

Behin testu ofizialetan parte-hartzea non aipatzen den ikusita, goazen orain berraztertzea horren zergatia nondik datorren aztertzea. Batetik ingurumen-jasangarritasunak exijitzen dituen eraldaketengatik dator kezka, egungo eredu nagusitik eredu jasangarri batera iragateak eraldaketa ekonomiko, politiko-instituzional eta kultural handiak eragingo bailituzke eta, beraz, bide hori, botere publikoen eta gizartearen arteko interes anitzen arteko birdoiketa etengabea eta ikasketa prozesu jarraitua izango litzateke, zeina aktore ezberdinen parte-hartzearen bidez ez bazen, ezinezkoa zatekeen (Font eta Subirats, 2001). Bestetik, ildo beretik baina taldeen arteko egiturazko harremanetan bainoago, jarrera mikroetan zentratuta, Olaizola eta Álvarez-ek (2003) diote mundu jasangarri batek egungo eredu nagusia kokatzen den pertsona bakoitzaren aldaketa eskatzen duela, ostera produkzio- eta kontsumo-ereduak alda daitezela; honek balio-aldaketa dakar eta, beraz, herritarren inplikazioa eta parte-hartzea premia-aldaketa dela bizitza-ereduak aldatu ahal izateko. Testuinguru horretan gatazka suposatzen duen problematika beraren definizioa zaila izaten da batzuetan, eta, ondorioz, tokiko komunitatearen inplikazioa garrantzitsua da, bai arazoa ondo ulertzeko, bai konponbide propioak identifikatu ahal izateko, eta bai erabakitako ekintzen eraginkortasuna bermatzeko (*ibid.*).

Argi dago beraz garapen jasangarriari dagozkion erabakiak ez direla hautu tekniko hutsak, zeren karga normatiboa duten banakoen eta komunitateen lehen-tasunak gainera balio-aukerak baitira, beraien arteko koste, onura eta arriskuen banaketa suposatzen baitute (Meadowcroft, 2003) eta, ondorioz, erabaki horietan parte-hartzeak justizia-elementuak ere baititu. Zentzu horretan garapen jasangarriak epe luzeko adostasuna eta konpromisoak bilatzen ditu, baina gerta daiteke hori beti posible ez izatea, eta, beraz, parte-hartzea desberdintasunak, kontraesan eta antagonismoak adierazteko bidea eta, aldi berean, horiek kudeatzeko modua izatea (*ibid.*), epe motzeko akordioak epe luzeko helburuekin konbinatuz.

Aipatu ditugun parte hartzeko zergati horietatik eratorrita, oraindik ere parte-hartze mota desberdin asko onargarriak dira, eta are esanguratsuagoa dena, oro har ez da definizio zehatzik edo unibertsalik ematen. Dena den, parte hartzeak barnerakorra, sinergikoa eta proaktiboa izan behar duela diote Font eta Subirats-ek (2001), eta bestetik Tokiko Agenda 21 esperientziei begiratuta parte-hartzeari dagokionez, berau, trinkoa, dibertsifikatua eta barnerakorra izan ohi dela esan

4. Ikus Maurer C.; Ehlers S. eta Buchman A. (2003). Aligning Commitments: Public participation, international decision-making, and the environment. WRI Issue brief.

daiteke. Trinkoa, aktore sozialen sarrera ahalbidetu duelako udal-politiketan, dibertsifikatua parte hartzeko instrumentu motak biderkatu dituelako, eta barnerakorra aktore sozial mota desberdinei atea ireki dizkielako (*ibid.*).

Finean, Meadowcroft-ek (2003) ere dioenez, garapen jasangarrirako estrategietan erabakia ez da ea parte-hartzerik egon behar duen ala ez, baizik eta honek hartu behar duen forma, hots, zeinek, nola eta noiz parte hartu behar duen. Eta zentzu horretan, ezin da esan parte-hartze intentsiboena, zabalena eta maiztasun gehiagokoa hoberena denik, horrek ebaluazio kuantitatibo lineal hutsa suposatuko bailuke (*ibid.*), eta askotan parte-hartzearen eragin eta emaitzak kualitatiboak izaten dira.

2.3. Munduko Bankuaren parte-hartzearen erabilera

Atal honetan ez dugu berezko garapenaren teoria bat aztertuko baizik eta diskurtso bat, baina Munduko Bankuaren (MB) garapenaren diskurtsoa aski garrantzitsua da eta nahikoa eragina dauka aktore mota oso desberdinen artean, bere parte-hartzearen inguruko pentsamendu-korrantea kontuan har dezagun. Munduko Bankua 1944ko Bretton Woods-eko hitzarmenekin sortzen da, eta ordutik bere garapenaren gaineko ikuspegia eta praktikak zenbait etapa izan ditu, eta giza garapenean edo garapen jasangarrian ez bezala, Bankuak ez du hasieratik parte-hartzea kontuan izan, parte-hartzearen inguruko kezka aurrereko bi teorien garai berdinean sortzen da 90eko hamarkadaren hasieran. Hurrengo lerroetako analisia errazteko Munduko Bankuaren parte-hartzearen gaineko diskurtsoari dagokionez hiru esparru jorratuko ditugu: lehenengoa mikro-maila batean proiektu konkretuetan parte-hartzeari dagokio; bigarrena, maila makro batean *Poverty Reduction Strategy Papers* (PRSP) elaborazioari dagokiona; eta hirugarrena, kapital soziala eta enpoderamenduaren kontzeptuen erabilera suposatzen duenaren inguruan.

Denboran lehenago zertzen den ikuspegia, proiektuei dagokiena da, 90eko hamarkadaren hasieratik, eta berau aztertzeke Bankuak 1996an argitaratzen duen *Participation Sourcebook* gidan oinarrituko gara⁵; izan ere, helburu, ikuspegi, esperientzia eta teknika asko laburbiltzen baitira bertan. Testu horretan hasieratik gaiaren konplexutasuna onartzen da, eta parte-hartzea kontzeptu aberatsa dela esaten da, esanahi desberdinak izan ditzakeela pertsona desberdinentzat kasu desberdinetan; baina Bankuarentzat oinarritzko elementua proiektuaren babesle eta diseinatzaileek hartzen duten kolaborazio-jarrera da, interesatutako bestelako aktoreek, tokiko sisteman txertaturik daudenek, eragiten eta kontrola dutelarik hartutako erabakietan (Munduko Bankua, 1996). Zentzu horretan proposatzen den parte-hartzearen definizioa hurrengoa da: «Prozesu bat zeinaren bitartez interesaturiko aktoreek, beraiek jasotzen dituzten garapen-ekimen, erabaki eta errekursoetan eragiten duten eta horien gaineko kontrola banatzen duten» (*ibid.*).

5. Munduko Bankuaren parte-hartzearen inguruko ikuspegiaren bilakaera ulertzeko baliagarriak dira hurrengo dokumentuak, besteak beste: Cernea, M. (arg.) (1991): *Putting People First. Sociological variables in rural development*, Oxford, UK, Oxford University Press for the World Bank. Narayan, D. (1994): *The contribution of People's participation: 121 Rural Water Supply Projects*, World Bank. World Bank (1994): *The World Bank and Participation*, Washington DC. Hastapenetan ere koka daiteke Munduko Bankuaren Pobreziaren Analisi Parte-hartzaile teknika (PPA, Participatory Poverty Assessment ingelesez).

Garrantzitsua da ondo definitzea zeintzuk diren “interesaturiko aktoreak” eta zer den zehazki “eragitea eta kontrola banatzea”. Batetik, aktoreei dagokienez, afektatua gerta daitekeen edozein edo proiektua baldintza dezakeen edozein kontuan hartzen da, eta, beraz, aktoreen taldea nahiko heterogeneoa da, hortxe tokiko gobernu eta enpresak, fundazio eta elkarte erlijiosoak, organismo autonomoak, GKE, etab. sar baitaitezke. Bestetik, kontrola banatzeari dagokionez, proiektuetan informazio- eta galdeketa-prozesuez harago joatea proposatzen da, erabakihartzea elkarrekin izan dadin. Gainera, erabakiak hartzeko hainbat talderen hasierako irteera-puntua zailagoa izan daitekeela ohartzen du, eta, beraz, horien aurretiazko prestaketa eta hezkuntza premiazkoa dela seinalatzen du, hala gertatuko litzateke emakume, txiro, edo indigenekin adibidez.

Bankuaren ikusmoldearen parte-hartzearen inguruko guk proposatutako bigarren esparrua makroikuspegi batetik abiatzen da, PRSPrekin batera. Kasu hau Bankuaren garapena ulertzeko beste etapa batean txertatu behar dugu, ekonomiaren ikuspegi neoinstituzionalista batetan oinarrituta 1999tik aurrera *Comprehensive Development Framework* (CDF) abiatzen denean, eta bestetik *Highly Indebted Poor Countries* (HIPC) ekimena martxan jartzean.

CDF parte-hartzeak garrantzi handiagoa hartzea ahalbidetuko duen testuingurua da; izan ere, ikuspegi berri horretatik ez bakarrik garapen ekonomikoari, baizik eta garapen sozialak inplikatzeko dituen egiturazko elementuei, faktore markoekonomiko eta instituzional edo sozialen arteko harremanei, eta epe luzeari begiratzeko baitaie. Eta zentzu horretan eginahalak emankorrak izan daitezkeen, interesaturiko aktore guztiarekin eztabaidatzea funtsezkoa da, prozesu parte-hartzaile bat martxan jarritz, gardena eta arduratsua izango dena (Wolfenshon, 1999).

Stiglitz-ek (2000) dio ikuspegi holistiko berri hau inplementatzeko, Bankuak harreman mota berriak eraiki nahi zituela lan egiten zuen herrialdeekin eta baita herrialdeen barruan. Zentzu horretan, prozesu parte-hartzaileek elkarriketa irekia eta herritarren konpromiso zabala inplikatu beharko litzukete, eta jendeak eragiten dien erabakietan hitza izatea funtsezkoa litzateke (*ibid.*).

Dena den, ez dira edonolako prozesuak bilatzen, baizik eta emaitzen bilaketara bideratuta dauden eta politikak diseinatzearen arduradunei erabakiak hartzeko input konkretuak eskeinitzeko dizkien prozesu itxiak, bestelako prozesu irekiak non orotariko proposamenak bota daitezkeen balio gutxiko gomendio orokorrak sortu baititzakete (MB, 2002). Zentzu horretan, parte-hartzearen gaineko ikuspegi instrumental argia dago Bankuaren aldetik, eta berau gidatu beharko luketen printzipioak hurrengoak lirateke: programarekin identifikazioa; gardentasuna; barneraketa; jasagarritasuna; hobetze jarraitua eta emaitzei zuzenduta egotea.

Prozesu hauetan garrantzitsua litzatekeen beste alde bat talde interesatuen analisia burutzea da, bakoitzak maila desberdin batetan parte har baitezake; sei talde nagusi banatzen dira: publiko orokorra, gobernua, ordezkarien asanbladak, gizarte zibilaren erakundeak, sektore pribatua, eta nazioarteko emaile eta finantza-instituzioak (MB, 2002).

Azkenik, mikro eta makro filtroetatik harago, Bankuaren parte-hartzearen inguruko hirugarren ikuspegi bat bi hitzetan bada ere aipatzea dago behintzat, Kapital

Soziala eta Enpoderamenduaren diskurtsoetatik eratorria⁶. Batetik CDFrekin kontzeptu-egitura antzekoa izanda, baina bestetik PRSPrekin zerikusi handi barik, Kapital Soziala aktore ekonomikoek hazkundera eta garapena sortzeko dituzten antolaketa eta elkarrekintzarako erak dira; edo beste era batean aipatua, gizarte baten barne-koherentzia sozial eta kulturala, eta jendea eta instituzioen arteko interakzioak bideratzen dituzten norma eta balioen multzoa (Grootaert 1998). Ikuspegi honetatik parte-hartzearen garrantzia nabaria da, informazioa banatzeko, jarduerak koordinatzeko edota erabaki kolektiboetara ailegatzeko errazteko.

Antzerako justifikazioa aurki dezakegu Bankua enpoderamenduz mintzo denean (MB, 2002); empoderamendua beraien bizitzetan eragina duten instituzioetan parte hartzeko, negoziatzeko, eragiteko, kontrolatzeko eta kontu-argiketarako pertsona pobreen ondasun eta gaitasunen hedakuntza litzateke. Eta orduan, lau elementu komun daude empoderamendua lortzeko: informazio-lorbideak; barneratzea eta parte-hartzea; kontu-argiketa; eta tokiko antolaketarako gaitasuna.

3. Hainbat kritika parte-hartzea orokortzean

Ikusi dugunez, parte-hartzea sustatzeko hainbat arrazoi eta modu daude, eta horrela izanda ere, edo agian horrexegatik hain justu, askok bat egiten dute estrategia erabilgarria dela aipatzean. Testu osoan zehar defendatu dugunez, ez dago parte-hartzearen definizio bakar bat, eta horrek label berdinarean atzetik praktika asko eta askotarikoak legitimatuak izan daitezkeela suposatzen du (Cornwall eta Gaventa, 2001). Eta garapenaren teoria bakoitzak bere parte-hartzearen ikuspegia duela azaltzen saiatu gara; izan ere, parte-hartzearen definizio positibo berak erreferente normatibo bat eskatzen baitu (Dubois, 2000), garapenaren kontzeptu bat, alegia. Horrek parte-hartzearen ambiguitasuna planteatzera garamatza, hots, komunitate edo giza taldeen garapenean parte-hartze horrek eurak aldaketa barik dirauen sisteman barneratzerako (bazterketa-sortzaile den sistema berean) edo gizarte-eraldaketarako eta subjektu horien enpoderamendurako balio dezakeela planteatzera.

Ambiguitasun hori nolabait areagotu da parte-hartzea nazioarteko instituzioen praktiketan orokortu denean, batetik diskurtso, ikusmolde eta teknikak zabaldu direlako, baina bestetik partaidetza-prozesuen hasierako erro eraldatzailea desgertzen joan delako (Rahnema, 1993). Horrela, garapen parte-hartzaile bezala identifikatu ahal genuen korronea gorpuzten zihoan neurri berean, nagusiki LDPren zabaltzearekin batera baina baita aurreko atalean aipatutako hiru partaidetza-diskurtsoen ondorioz, parte-hartze horren kalitate eta emaitzen inguruko kritikak areagotzen ziren. Garapen parte-hartzaileari egiten zaizkion kritika-ildo nagusiak⁷ Cleaver (1999) eta Williams-ek (2004) ondo jasotzen dituzte:

6. Kapital Sozialaren eta Enpoderamenduaren erroetatik eratortzen den parte-hartzearen inguruko hausnarketarako ikus: Villalba, U. (2007): "Participación y Desarrollo: ¿Capital Social y/o empoderamiento?". Hegoa Institutoak antolatutako "Giza garapenaren erronka. Beste Globalizazio baterako tokian tokiko proposamenak" izenburupeko kongresuan aurkeztutako papera.

7. Askoz ere zehatzagoak izan daitezke Munduko Bankuaren praktikari egiten zaizkion kritikak. Guk aipatutako Bankuaren ikuspegiatarako ikus: Fine, B. (2001): *Social Capital versus Social Theory. Political economy and social science at the turn of the Millennium*, Routledge, London. Moore, M. (2001):

- Askotan parte-hartzea proiektuetan erabiltzeko metodo tekniko huts bezala ikusten da, metodologia politiko bat beharrean.
- Boterearen inguruko hausnarketak alde batera uzten dira gatazkatsuak eta banatzaileak direlakoan. Zentzu berean norberaren aldaketa pertsonala bilatzen da estatuaren egituraren borroka politikoa eraman beharrean.
- Parte-hartzea edozein egoera eta testuingurutan ontzat jotzen da, parte-hartzaileentzat izan ditzakeen kostuak eta emaitzak kontuan hartu barik.
- Talde baztertuetan, behetik gorako ikuspegietan eta tokiko komunitateetan zentratuegia egoten da, askotan komunitatea zer den definitzea zaila izan arren eta gainera barneko disparekotasunak ahazteko arriskua dagoelarik.
- Tokiko ezagutza eta informazioekin obsesioa, hauek informazioa sortzeko erlaziozko prozesuak ezkutuan geratzen direlarik, eta tokiko informazioa kanpoko filtro eta kontzeptuek eragindako diskurtsoak baino ez izatea gerta daitekeelarik.
- Garapen-lankidetzarako proiektuetan oinarrituriko ikuspegiaren murriztapen nabariak kontutan ez izatea, horren ondorioz ere parte-hartzea gai konkretu batzuetara mugatzen delarik eta garapenaren agenda ezartzeko gaitasuna galtzen delarik.

Kritika hauek guztiek, ordea, ez dute esan nahi parte-hartzea berez *txarra* denik, baizik eta berau praktikatzeko modu desberdinak daudela, eta gizarteraldaketa bilatzen bada, hori oso kontuan hartu behar dela. Hala bada, ahal den neurrian kooptazioa suposa dezaketen prozesuak ekiditeko erreferente normati-boa argi izatea eta parte-hartzearen politizazioa proposatzen dira.

4. Ondorioak. Parte-hartzearen politizazioaren beharra

Partaidetza-prozesuak garapenerako estrategia eraginkorra izan daitezkeela teoria anitzek defendatzen dute gaur egun, baina eraginkorrak zertarako? Zer garapen-helburu bilatzen dute? Hortxe dator erreferente normatibo garbia izatearen beharra. Ez da testu honetan bilatu, ordea, berau definitzea, aukera bat baino gehiago ere badirelako eta lan luzea litzatekeelako.

Bestetik, erreferente garbia izateak ez du zuzenean inongo arrakastarik bermatzen, puntu horretan edozein partaidetza-prozesuren metodologiaren egokieraren ebaluazioa egin behar delako⁸. Dena den, estrategia horren formaren puntu bat azpimarratzea dago, parte-hartzearen izaera politikoa onartu behar dela. Zentzu horretan, Gaventa-k (2004a, 2004b) dio gaur egun garapenean eta politikan parte-

“Empowerment at last?”, *Journal of International Development*, 13. lib. Harriss, J. (2002): *Depoliticizing Development. The World Bank and the Social Capital*, Anthem Press Glasgow. Kwok Fu, W. (2003): “Empowerment as a panacea for poverty -old wind in new bottles? Reflections on the World Bank’s conception of power”, *Progress in Development Studies*, 3. lib., 4. zk. Brown, D. (2004): “Participation in Poverty Reduction Strategies: Democracy strengthened or democracy undermined?”, in S. Hickey eta G. Mohan, *Participation: from tyranny to transformation?* Zed Books, London.

8. Ikus Villalba, U. (2007): “Condiciones para una participación emancipadora en el desarrollo”, HEGOIA institutuak “Giza garapenaren erronka. Beste Globalizazio baterako tokian tokiko proposamenak” izenburupean antolatutako kongresuan aurkeztutako papera.

hartzearen diskurtsoak eta esperientziak bat egiten doazela, bereziki gobernantza-eredu berriek erabaki politikoetan aktore gehiago sartzeari ahalbidetzen duten neurrian, eta politikaren edo kontu publikoen esparrua zabal daitekeen neurrian.

Garapenaren eta politikaren berezko bat-egite horretaz aparte, Hickey eta Mohan-en iritziz (2005) parte-hartze metodologiak ere, oro har, eraginkorrak izaten dira hori betetzen denean, beste baldintza batzuen artean:

- proiektu politiko erradikal zabalago baten barruan txertatzen direnean;
- baztertutako taldeen parte-hartzea eta herritartasun-eskubideak bermatzera zuzenduak izaten direnean;
- garapenarekin eraldaketa sozialeko prozesu bezala bat egitea bilatzen dutenean, esku-sartze puntual eta banatuen forman beharrean.

Bibliografia

- Alkire, S. (2002): "Dimensions of human development", *World Development*, 30. lib., 181-205.
- Blackburn, J.; Chambers, R. eta Gaventa, J. (2000): *Mainstreaming Participation in Development*, OED Working Paper Series, World Bank, Washington.
- Cleaver, F. (1999): "Paradoxes of participation: questioning participatory approaches to development", *Journal of International development*, 11. lib., 597-612.
- Cooke, B. eta Kothari U. (2001): "The case for participation as tyranny", in B. Cooke eta U. Kothari, *Participation: the new tyranny?*, Zed Books, London, 1-15.
- Cornwall, A. eta Gaventa, J. (2001): *From Users and Choosers to Makers and Shapers: Repositioning Participation in Social Policy*, IDS Working Paper, 127.
- Dubois, A. (2000): "Equidad, Bienestar y Participación. Bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro", *Cuadernos de Trabajo de Hegoa*, 26, Bilbao
- Font, N. eta Subirats, J. (2001): "La participación pública en los procesos de agenda 21 local", in J. Font, *Ciudadanos y decisiones públicas*, Editorial Ariel, Barcelona, 185-200.
- Gaventa, J. (2004a): "Towards participatory governance: assessing the transformative possibilities", in S. Hickey eta G. Mohan, *Participation: from tyranny to transformation? Exploring new approaches to participation in development*, Zed Books, London, 25-41.
- , (2004b): "Participatory development or participatory democracy? Linking participatory approaches to policy and governance", *Participatory Learning Action*, 50. lib., 150-159.
- Grootaert, C. (1998): "Social Capital: the missing link?", *Social Capital Initiative working paper*, 3, World Bank.
- Hickey, S. eta Mohan, G. (2005): "Relocating participation within a radical politics of development", *Development and Change*, 36. lib., 2, 237-262.
- Ibarra, P. (2001): "Participación política y desarrollo humano", in P. Ibarra, *Ensayos sobre el Desarrollo Humano*, Icaria, Bartzelona, 109-135.
- Kliksberg, B. (2000): "Seis tesis no convencionales sobre participación", *Revista Centroamericana de Economía*, 57-58, 32-67.
- Meadowcroft, J. (2003): "Participación y estrategias para el desarrollo sostenible", *Revista Instituciones y Desarrollo*, 14-15.

- Munduko Bankua, (1996): *The World Bank Participation Sourcebook*, World Bank Environment Department Social Policy Division, Washington.
- , (2002): *Empowerment and Poverty Reduction: A Sourcebook*, PREM, World Bank, Washington.
- Nazio Batuen Garapenerako Programa (NBGP): *Informe sobre Desarrollo Humano*, (hainbat urte).
- Nazio Batuen Ingurugiro Batzordea (NBIB) (1988): *Nuestro Futuro Común*, Alianza Editorial.
- Olaizola, I. eta Álvarez, N. (2003): "Participación en materia ambiental", in C. San Juan Guillén; J. Berenguer; J. A. Corraliza eta I. Olaizola, *Medioambiente y Participación: Una perspectiva desde la psicología ambiental y el derecho*, UPV, 109-145.
- Perez de Armiño, Karlos (2000): *Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo*, Hegoa, Icaria, Bilbao.
- Rahnema, M. (1993): "Participation", in Sachs, *The Development Dictionary*, Zed Books. London, 116-131.
- Riechmann, J. (1998): *Necesitar, desear, vivir. Sobre necesidades, desarrollo humano, crecimiento económico y sustentabilidad*, Libos de la Catarata.
- Sen, A. (2000): *Desarrollo y libertad*, Editorial Planeta.
- Stiglitz, J. (2000): "Participación y desarrollo: perspectivas desde el paradigma integral de desarrollo", *Revista Instituciones y Desarrollo*, **7**, 93-120.
- Williams, G. (2004): "Evaluating participatory development: tyranny, power and (re)politicisation", *Third World Quarterly*, 25. lib., **3**, 557-578.
- Wolfensohn, J. D. (1999): *Propuesta de un Marco Integral de Desarrollo*.

